



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Leire Bazterrika Loiarte.
Jose Maria Michelena Erasun.
Imanol Baleztena Elizalde.

2017ko urriaren 30ean, 8:00etan, Zubietako Herriko Etxean elkartzen dira ohizkanpoko biltzarrean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Dominguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. OIHAN ENKANTEA.

2017ko urriaren 18an egindako bileran erabaki zuen kontratazio-mahaiak, *Txomatxiki* parajeko egur lotea esleitzea behin-behineko.

Akta jendaurrean jarri zen, “sesta” egitea xede, eta ez zuen inork proposamen berririk aurkeztu.

Aipatutakoak kontuan izanda, aho batez erabakitzen da:

1. *Txomatxiki* parajeko lotea (667 *pinus nigra*) behin betiko esleitzea SERVICIOS FORESTALES DE DIOS SLU-ri 4.925,38 eurotan, gehi dagokion BEZa.

2. Akordio hau jakinaraztea adjudikatariari eta Nafarroako Gobernuari.

2. MARTINEKOBORDAKO BIDEA.

2017ko urriaren 9ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara 393/2017 Ebazpena, irailaren 29koa, Toki Administrazioiko zuzendari nagusiak emana, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planean, Toki Programazioaren barrenean, “bizitoki iraunkorretara doazen eta biziguneen arteko bideei” dagokion atalean sartutako inbertsioen behin betiko zerrenda onesten duena, eta, horrekin batera, urtez urteko banaketa. Finantzatzen ahal diren inbertsioen zerrendan dago *Martinekobordako* bidea, 2017an egiteko.

Abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legearen IV. eranskineko 4. atalean xedatutakoa betez, aho batez erabakitzen da:

1. “*Martinekobordako* bidearen moldaketa” proiektua onestea, Martin Mindeguia Ochandorena ingeniariak egina.

2. Inbertsioaren finantza plana onestea.

3. Diruzaintza soberakineko 3.353,48 euro afektatzea obrak finantzatzeko.



ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)
31746

4. Erabaki hau jakinaraztea Toki Administrazioako zuzendari nagusiari.

Eta bertzerik ezean, 08:15 direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.